

Arrasate

P R E S S

1995eko
uztailak 14
284. zenb.

ELKARRIZKETA
Arantza Jaka,
lekaimea

KIROLAK
Multikirola
Kiroldegian

A photograph of three men standing in front of a light-colored brick wall. The man on the left is wearing a blue polo shirt and a watch. The man in the middle is wearing a light-colored t-shirt. The man on the right is wearing a light blue polo shirt and glasses. They are all looking towards the camera. A large black Sony video camera is positioned in the foreground, partially obscuring the men.

Dragoi
Produkzioak

ANTZERKIA

"Sobradun" Gasteizko antzerki taldeak aurkeztuta:

HERMINIO y MIGUELITO



(TMEO komikiaren Herminio Bolaextraren abenturak)

GAUR
UZTAILAK 14, OSTIRALA
Gaueko 10.30 etan
MONTERRON PARKEAN

(Eguraldi txarra eginez gero Amaia Antzokian)



Arrasateko Udala
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Hizkuntza eta Literatura tolerantziarako

Beste zenbaitetan bezala, orduan ere liburudenda batean sartu eta liburuak begiraten hasi nintzen. Halako batean "Educar para la tolerancia" liburuak ikusi nuen, 1993.ean argitaratuta Editorial Popular deritzan argitaletxean, Jóvenes contra la intolerancia kolektiboak, hain zuzen. Egia esan erakargarria iruditu zitzaidan titulua, eta are gehiago "Lengua y literatura para la tolerancia" izeneko artikulua ikusi nuenean bertan. Beraz, erosi eta etxera ekarri nuen nirekin. Tolerantzia eta intolerantzia oso kontzeptu zaharrak badira ere berri berriak balira bezala saldu nahi dizkigute gaur egun.

Halere, kuriositateak jota edo, aipatu kapituluak irakurtzen hasi nintzen. Honek hainbat azpi-sail ditu. Lehendabizikoan autoreak klase sozialak eta hezkuntza aztertzen ditu, bertan hizkuntza eta herriak diskriminatuak izan ez ditezen ONUk hartutako erabakiak aipatzen dira. Bigarren atalean zentsurari buruz hitz egiten da, eta horrela boskarren atalera heldu nintzen.

Egia esan bitarte honetan ez nuen ezer apartekorik ikusi. Boskarren kapitulu hau ordura artekoak baino erakargarriago zirudien hizkuntzen aniztasunaz hitz egiten baitzuen. Autoreak Komunitate Europarra eraikitzearen beharra aipatzen du bertan eta horretarako ezinbestekotzat

jotzen du Europako hizkuntza eta kultura guztiak denonak direla asumitzea. Eta jarraitzen du... "hizkuntzen eskurapena da Europa eraikitzeo tresnarik garrantzitsuenetarikoa". Besteen hizkuntzak ezagutzeak Europa anitzean sartzeko aukerak ematen baititu. Horregatik, hau horrela gerta dadin eskolako curriculumean beste hizkuntza europar baten eskurapena gomendatzen da, horrela gazteak elebidun izateko aukera ezin hobea izango dute.

Autoreak ez daki Estatu Espainiarrean espainolaz gain beste hizkuntza batzuk daudela eta hauek ere Europako patrimonio direla eta normaltasunerantz jotzeko ahalegin handiak egiten ari direla hizkuntzotako hiztunak azken urteotan. Autoreak ez daki Arrasate Press bezalako aldizkariak espainola ez den hizkuntza batean argitaratzen direla Estatu Espainiarren barruan, ez eta gure Herriko haur gehienak elebidun direla atzerriko hizkuntza bat ikasten hasi aurretik. Nire ustez gauza asko ahaztu zaizkio autore honi tolerantziak hitz egiteko. Penagarriena zera da, liburu hau tolerantziaren izenean argitaratu eta zabaldu dela eta bere kapitulu bati, behintzat, tolerantzia usaina zabaldu ordez ignorantziarena dariola.

MATILDE SAINZ OSINAGA



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian,

"Alkoholiko

Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

• **ARRASATE PRESS** •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikatzailea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 05 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jaurregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Berto eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karnele Perez, Sorjinak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Onati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Goio Arana

LORAMENDI

KIROLAK



Zure oporrak
prestatzeko material
bila bazabiltza, zatoz

LoRAMENDira.

- Kanping-a
- Hondartza
- Mendia
- Abentura



MCKINLEY®



INTERSPORT®

Ezagutu Euskal Herria bizikletaz



Abuztuaren 1etik 15era

40-50 KMko etapak

Etapak

Arrasate-Garaio
Garaio-Etxarri
Etxarri-Narbarte
Narbarte-Kanbo
Kanbo-Baigorri
Baigorri-Auritz
Auritz-Gotañe
Gotañe-Kanbo
Kanbo-Baiona-Uztaritze
Uztaritze-Donibane
Donibane-Pagola-atharratze


15.000 pta (Pensino kompletue)

Antolatzaileak:

AED - 77 12 28 eta GAZTERIA (Iparralde)

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, Gipuzkoako Foru
Aldundia eta Eusko Jaurlaritzza

Zer iruditzen zaizu zentsura mozioa aurkeztea?




Jose Mari Herrero
Fagorreko langilea
(44 urte)

Zer esango dizut, ez naiz inolako talde politikoren aldekoa baina tripartitoaren historia hori ez zait gustatzen. Alkatetzan boto gehien atara duena gelditu behar dela uste dut. Zentsura mozioa ez dut ondo ikusten.



Antonio Rienda
Langilea
(36 urte)

Oso gaizki iruditzen zait. HBk gehiengoa lortu badu horrela geratu behar dela uste dut. Talde politikoen botoak batzea ez zait ondo iruditzen.




Iñaki Gorostidi
Fagorreko langilea
(39 urte)

Zentsura mozioa azken errekurtoa da. Talde politikoak elkartu eta euren interesen gaintik herriaren interesa defendatuko lukeen akordio bat egin beharko luketela uste dut.




Ane Markina
Langabezian
(26 urte)

Ba, horri buruz ez dakit gauza handirik eta gainera ez zait gehiegi interesatzen. Ez dakit zer esan.



Maite Oliver
Ikaslea
(23 urte)

Ez zait ondo iruditzen. HBk gehiengoa atara badu, Alkatetzan geratu behar du. Tripartittoa osatu eta zentsura mozioa aurkeztea herriak eskatzen duenaren aurka joatea dela uste dut.



Jon Berostegieta
Ikaslea
(22 urte)

Ez dakit, lehenago pentsatu eta lehenago aurkeztu behar zuten. Orain berandu da. Hirukoa egiten badute seriooki egin dezatela eta ez dezatela tranparik egin. Giroa berotu besterik ez dute egiten.



Saioa Benitez
Ikaslea
(16 urte)

Ez zait ondo iruditzen. HBk gehiengoa lortu badu horrela geratu behar dela uste dut.



Jaione Elejalde
Etxekoandrea
(31 urte)

Oso gaizki ikusten dut. HBk atara zituen boto gehien eta horrela geratu behar dela uste dut. Gainera Zubizarretak karisma berezia duela uste dut.

EKOMOBIL

**BISITA GAITZAZU ZALDISPE 2an,
OSPITAL ONDOAN
Uztailean eskaintzarik onenak...
500.000 pta.ra arteko beherapenak!**

ARRASATE
Tfnoak: 79 50 71 / 79 97 12



PEUGEOT

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetzeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatorioa79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 14
 Egunez eta gauez : Mazas. Bergara.
 10ak arte: Iturriotz. Español.

Larunbata 15
 Egunez eta gauez : Estella. Bergara.
 10ak arte: Corcuera. Musakola.

Igandea 16
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Astelehena 17
 Egunez eta gauez : Estella. Bergara.
 10ak arte:Ruiz. Maala.

Asteartea 18
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Asteazkena 19
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Osteguna 20
 Egunez eta gauez : Español. Iturriotz.

14 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Mujercitas" 7etan eta 10etan
- **HERMINIO Y MIGUELITO ANTZEZLANA**
 Sobradun antzerki taldearen "Herminio y Miguelito" antzezlan Monterron parke-angauko 10.30etan. Sarre-700 pta. eta gazte txartelarekin 500 pta.
- **SANTAMAINAKO JAIAK**
 Arratsaldeko 3etan Xake eta Ping-Pong txapelketak Alkatezako lokalean. 5etan Makatzeneko pistan 14 urte bitarteko Marrazki Lehiaketa. 7etan Suzirien jaurtiketa eta erraldoi eta buruhandien kalejira auzoan. 7.30etan IV. futbol txapelketa bikoteentzat. 10etan Tute txapelketa bikoteentzat eta 11etan "Haitzama" taldearekin dantzaldia.
- **PORTASOLEKO JAIAK**
 6etan jaiak adierazteko txupinazoa. 6.15etan erraldoi eta buruhandiak. 7etan play back lehiaketa Eguzki alde plazan. 8etan herri poteoa eta 11.30etan "Egan" taldearekin dantzaldia Eguzki alde plazan.



MAALAKO JAIAK

Uztailaren 22 eta 23an Maala Arrabaleko jaiak ospatuko dira. Umeentzat jokuak, dantzaldia eta beste zenbait gauza antolatu dute astebukaerarako.

15 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Mujercitas" 7.30etan eta 10etan.
- **SANTAMAINAKO JAIAK**
 9.30etan goiz-eresia suziriekin. 10etan futbito finalak Makatzeneko pistan. Egunguztiaz zehar gazteentzat Bolo-Palma. 12.15etan Makatzenen haurrentzat jolasak. Ordubatean jubilatuentzat meza La Merced elizan eta ondoren bazkari omenaldia. 5etan Oben-Errekako Pilotalekuan pilota partidua. 6.30etan erraldoi eta buruhandien kalejira. 7.30etan Herri Kiro-lak. 11etan Eklipse taldearekin dantzaldia.
- **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
 "El desván de Macho" Arrasateko taldea eta "Aninosa Martinez" Ordiziakoak kontzertua eskeiniko dute Gaztetxean gaueko 9etan. AGAk antolatuta.
- **ARAMAIOKO AIXOLA AUZOKO JAIAK**
 12etan kanpai eta etxalferuekin jaien hasiera. 12.30etan Meza Santua. 1.30etan txirrindulari lasterketa. Ondoren Bermouth dantza trikitalariekin. 5.30etan Aixolatik Arrixolara kalejira. 6.30etan Auzo jolasak (mus, Briska..) eta 3etan txokolatada.
- **PORTASOLEKO JAIAK**
 10etan diana txistulariekin. 12etan sokamuturra. 1.30etan poteoa. 3.30etan mus txapelketa. 4.30etan umeentzat karaokea eta txokolatada. 7etan erraldoi eta buruhandiak. 7.30etan sokamuturra. 8etan jubilatuentzat luntxa. 8.30etan poteoa. 9.30etan herri afaria Ibai Gain plazan. 10.30etan Almen taldearekin dantzaldia Eguzkialde plazan.

16 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Rápida y mortal" 7.30etan eta 10etan.
- **SANTAMAINAKO JAIAK**
 10etan futbito finalak Sta. Tere-sako pistan. 12etan meza La Merced elizan. Ordubatean sari banaketa Sta Tere-san. 3.30etan Mus Txapelketa bikoteentzat. 4etan Age-re Plazan haurrentzat jolasak Galtzagorri taldearekin. 5etan "Rana" txapelketa. 6etan erraldoi eta buruhandien kalejira. 7.30etan Age-re plazan jaialdi herrikoia (Zezen txiki, poniak...) 10etan Kaixo taldearekin dantzaldia eta 12etan azken traka.
- **ARAMAIKO AIXOLA AUZOKO JAIAK**
 12etan meza. Ordubatean dantzariak. Ondoren "Txinparta" taldearekin Bermouth dantza. 6etan umeentzat jolasak eta 8.30etan jaien amaiera.
- **KONTZERTUA GAZTETXEAN**
 "40 Wollok" Berlingo taldeak kontzertua eskeiniko du Gaztetxean arratsaldeko 7etan. AGAk antolatuta.
- **PORTASOLEKO JAIAK**
 10etan meza. 11.30etan marrazki lehiaketa. 3.30etan xake lehiaketa. 7etan poteoa eta 10etan jaien amaiera.
- **BIZIKLETA MARTXA DEBA ARROTIK**
 Deba Arroko talde ekologistek: Katagorri, Mendia Bizirik, Eguzki, Amilotx eta EKIk bizikleta martxa antolatu dute. Irteera goizeko 10etan Arrasatetik.

17 ASTELEHENA

• ZINEA

“Rápida y mortal” 7etan eta 9.30etan.

18 ASTEARTEA

• ZINEA

“Rápida y mortal” 7etan eta 9.30etan.

19 ASTEAZKENA

20 OSTEKUNA

• ZINE KLUBA

“Martínez” filmea Monterron parkean gaueko 10.30etan. Sarrera: 300 pta, eta gazte txartelarekin 250 pta.

• KONTZERTUA GAZTETXEAN

“Ades” eta “L.C.S.A” taldeen kontzertua Gaztetxean arratsaldeko 7etan. AGAk antolatuta.



3X3 SASKIBALOI TXAPELKETA

Urbina Maltzagak antolatutako 3X3 saskibaloitxapelketa uztailaren 17an hasiko da. 81-82 eta 83-84 urteetan jaiotako neska mutilek har dezakete parte. Partiduak Iturripeko kanpoko kantxan jokatu dira. Taldeak mixtoak izan daitezke, alebiren partidua 12 puntura jokatu da eta infantilena 18ra.



“GAZTEOK BIZIKLETAN” ARGAZKI LEHIAKETA

Gazteok bizikletan VI. argazki lehiaketa. Bi kategoriatan egongo da banatuta: A) Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak eta B) 19-35 urte bitarteko edozein. Gaia: Gazteok bizikletan. Modalitateak: zuri-beltz eta koloretan. Formatoa: A kategorian librea eta B mailan gutxienez 18X24 zm, gehienez 30X40 zm. Argazki guztiek 30 X 40 zm kartulina soportean joan behar dute. Beste lehiaketaren batean saritutako edota noizbait argitaratutako lanik ezin da aurkeztu. Lanak aurkezteko epea urriaren 11an amaituko da. Sariak: A mailan lehenarentzat 20.000 pta. eta bigarrenarentzat 15.000 pta. B kategorian zuri-beltzean eta koloretan lehenak 50.000 pta. eta bigarrenak 35.000 pta.

EGUNKARIA EGUNEKO KOLABORATZAILEEN AFARIA

Uztailaren 22an Egunkari egunean kolaboratzen ibili diren guztiek afaria izango dute Zaldibar pilotalekuan. Prezioa: 500 pta., izenamatea AEDn uztailaren 15a baino lehen.



EZAGUTU EUSKAL HERRIA BIZIKLETAZ

AEDk eta Iparraldeko Gazteriak ezagutu euskal herria bizikletaz bidaia antolatu dute abuztuaren 1etik 15era. Etapa bakoitzean 40-50 kilometro egingo dira. Etapak: Arrasate-Garaio, Garaio-Etxarri, Etxarri-Narbarte, Narbarte-Kanbo, Kanbo-Baigorri, Baigorri-Auritz, Auritz-Gotañe, Gotañe-Kanbo, Kanbo-Baiona-Uztaritze, Uztaritze-Donibane, Donibane-Pagola-Atharratze. Prezioa: 15.000 pta. pentsio osoaz. Izenamatea AEDn, Tlf: 77 12 28.

“Exportazioa balore nagusia da, guk %70a baino gehiago exportatzen dugu, eta hor kalitatez lan egiten duzu edo jai dago. Kalitatea ziurtatzeko sistema bereziak antolatu behar dira, eta gure enpresa horregatik saritu dute kalitatea ziurtatzeko duen sistemagatik.

(...) Somatu dugu ekonomia piska bat pizten ari dela, lanpostuak gehitu ditugu, salmentak handitzen ari dira eta badirudi bide onetik goazela. Orokorrean hartuta arduratuta nago, oraingoa une ona izan daiteke, pozgarria eta horrela hartu behar da, baina etorkizunerako ez dago garantiarik: Oso lan gogorra egin behar da, gero eta kompetentzia gehiago dago, eta zalantzak dauzkat hemen beharrezko aldaketak egin ote diren. Mundu mailan borrokatzeko prestakuntza handia behar da, bai kalitate aldetik, bai konpetitibitate aldetik, baita gestio aldetik ere, eta horretan zalantza bat baino gehiago badaukat. Gehiago prestatu behar dugu, ez dago beste biderik: lana egitea”.

(...) Enpresentzat, beste batzuen artean, ETA akats handienetariko bat da, baina nik uste dut enpresak ez direnean ondo joaten enpresa barruan dauden aktore guztiak ez daudelako maila onetan izaten dela”.

Juan Mari Uzkudun (Copreci), uztailak 11,



“Bai gure kasuan eta baita kooperatiben munduan, MCCren aldetik, nik uste nahiko zabalduta dagoela negozioak aurrera eramateko baditugula klabe batzuk, eta klabe horien barruan lan egin behar dugula. Guretzat klabea berrikuntzak asko lantzea da; horrekin batera kalitatea, kalitate barik ez eragitea ez baitago inon; kostoak ere konpetitiboak izan behar dute; eta azkenik, zerbitzuak, behar beharrezkoak bihurtzen ari dira eta

Peio Urteaga (Irizar), uztailak 11,



Zein neurri izan behar dira kontuan eguzkia hartzerakoan?

Eguzkia hartzea ona da baina kontua neurrian hartzea da. Gaur egun beltzarana egotea modan dagoenez, jendeak eguzki larregi hartzen du eta horrek ondorio txarrak ekartzen ditu. Gainera, ozono geruza gero eta ahulagoa denez, izpi ultramoreak errazago sartzen dira gure gorputzean eta horiek ere eragin kaltegarriak sortzen dizkigute. Epe motzera begira, azalaren gorritasuna eta erredurak ekar ditzake eguzki asko hartzeak. Epe luzera, berriz, azala lehenago zahartzen da eta zimurrak errazago irteten dira. Batzutan eguzki-beltzuneak ere irteten dira eta horiek lehenbailehen zaintzea garrantzitsua da, eguzkia hartzen jarraituz gero minbizia eragin dezakete eta.



Concepción Tamayo
Dermatologoa

Eguzkia neurritz eta apurka-apurka hartu behar da. Nola ez, eguzkipean jarri baino lehen beharrezkoa da azalean krema ematea. Azal zuria duenak, beltzarana duenak baino babes altuagoak kremak erabili behar ditu baina normalena, 15ekoa dutenak erabiltzea da. Azal zuria edo beste arazoren bat dutenek, altuagokoa erabili beharko dute.

Azkenaldean azaleko minbiziak ugairitu egin direla eta, gai honen inguruan jendea kontzientziatuz doa baina oraindik hankasartzeak egiten dira. Eguzkirako krema ez dugu hondartzara joaten garenean bakarrik eman behar, pasiatzera, mendira edo kirola egitera irteten garenean ere krema eman behar dugu. Eguerdi partean, gainera, kontu handiagoz hartu behar da eguzkia.

VE ECUADOR


Bidaiak

Bidaia zoragarri bat irabazi nahi baduzu, har ezazu parte ATBketan lehiaketan Ez galdu aukera!

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

GOIMAILAKO OSTALARITZA ESCOLA Oñati

JATETXEA



*Zatoz gure menua dastatzera!
Uztailaren 28ra arte zabalik!*

Patrua kalea, 7 • Tfnoa: 71 60 29

Drogen inguruan hainbat ekintza

Drogen erabilera okerraren eta narkotrafikoaren aurkako nazioarteko eguna ospatzeko, zenbait ekintza izan zen joan den ostiralean Arrasaten. Arratsaldeko 6.30etan giza katea erdialdeko kaleetan, 7etan Jon Sarasua bertsoan aritu zen eta ondoren Xabier Zubizarretak idatzi bat irakurri zuen.

Gau partean, Goikobalu eta Dunbaka perkutsio taldeen emanaldia izan zen. Antolatzaileek ezezik herriko jendeak ere parte hartu zuen ekintzetan.

Zinea kanpoan

“Las aventuras de Priscilla, Reina del Desierto” filme dibertigarriak ireki zuen aurtengo zine ageriko zikloa. Lagun ugari hurbildu zen ostegun gauean filmea ikustera eta eguraldiak lagundu zuenez, Monterrongo parkean eskaini zen filmea.

Epaiketa Alberto Iturralde “Euskadi”ri

Atzeratu egin da, Alberto Iturralde “Euskadi” gaitzizenez ezaguna den arrasatearrari joan den asteazkenean egin behar zioten epaiketa. Orain dela bi urte Salveko istiluetan parte hartu zuelakoan epaitu behar zuten Donostiako Epaitegian, baina testigu lana betetzera deituak zeuden bost ertzainetatik bakarra agertu zenez, epaileak bertan behera utzi zuen epaiketa. Fiskalak bi urte eta lau hilabeteko gartzela zigorra eskatzen du “Euskadi”rentzat eta abokatu defendatzaileak absoluzioa.



Ukraniako dantzak eta kantak Monterronen

Ukraniako dantza eta kanten jaialdia eskaini zuen Kalina talde folklorikoak joan den ostiralean. Arrasatearrek ez zuen ikuskizuna galdu nahi izan eta Monterron bete egin zen. Jaialdia hasi baino lehen, Kalina taldeko buruak eskerrak eman zien arrasatearrei. Dantzari ukrainiarrek ederto egin zuten dantzan eta musikariek ere maila bikaina erakutsi zuten.



San Ferminak Arrasaten

San Fermin eguna zela eta, ostiral goizean entzierroa korritu zuten Txatxilipurdiren udalekuetan parte hartzen ari diren neska-mutilek. Udaletxetik bota zuten txupinazoa entzun bezain laster, zezenen aurretik korrika atera ziren gazte guztiak. Erdiko kaleetatik bi buelta eman ondoren herriko plazan bukatu zen entzierroa eta ostean, bigantekin eta poniekin jolas egiteko aukera izan zuten. Asteazkenean Umezaintzako umeek korritu zuten entzierroa.

Coprecik eta Irizarrek saria jaso

“Principe Felipe” saria jaso zutela eta, joan den ostiralean Copreci eta Irizar kooperatibetako ordezkariak prentsaurrekoa eman zuten sariaren garrantziaz hitzegiteko. Kalitatea hobetzen egindako ahalegi-

nek fruitua eman dutela eta, Mondragon Korporazioko bi kooperatibetako kideak oso pozik azaldu ziren. Prentsaurrekoan esan zuten, orain dela bost urte seriooki hasi ziren kalitateaz arduratzen eta emandako aurrerapausua handia izan da.

PSE-EEkoek, HBren jarrera salatu

PSE-EEko zinegotzi taldeak idatzi bat kaleratu zuen joan den astean HBren jarrera salatzen. Idatzian esaten zenez, lazo urdinaren inguruan jasotako gertakizunek HBren intolerantzia eta alderdi horrek gehiengoarekiko duen mesprezua erakusten dute. PSE-EEen ustez, Korporazioak erabakitakotari jaramonik egin barik nahi duenean lazo urdina kendu izan du HBk Udaltxeko balkoitik.

JAIOZAK


- Andoni Varela Lazpita. Ekainaren 5ean.
- Julen Agiriano Lizundia. Ekainaren 22an.
- Sara Martin Reguillon. 26an.
- Gabriel Fernandes De Campos. 26an.
- Meritxell Ayala Olmedo. 27an.
- Maialen Uribarren Quiroga. Uztailaren 2an.
- Amagoia Muriozguren Ozkina. Uztailaren 6an.

EZKONTZAK

- Agustin Manso Velazquez eta Maria Angeles Corbella Rubio. Uztailaren 1ean. Elizatik.
- Juan Carlos Leo Montes eta Yolanda Cañanate Amor. 1ean. Elizatik.
- Jose Antonio Vizcaino Panadero eta Maria Nerea Urrutia Morras. 1ean. Elizatik.

HILDAKOAK

- Eugenia Berezibar Arabaolaza. Ekainaren 30ean. 95 urte.
- Victorino Garcia Abad Valenciano. Uztailaren 2an. 78 urte.
- Julia Sagarza Elorza. 3an. 81 urte.
- Maria Fernandez Fernandez. 6an. 73 urte.
- Miguel Cobos Irrisarri. 8an. 88 urte.



* Iñaki Jauregi

Gure ibaien berreskurapena

Deba arro guztian, eta bereziki Arrasaten, erreken egoera lehen mailako arazo ekologiko bihurtu da. Behin eta berriz, batez ere hauteskunde garaian, berreskuratu behar direla entzuten dugu, baina, ondorengo lau urteetan zehar ez da aldaketarik somatzen.

1991eko uztailaren 3an, aurreko legegintzaldiaren hasieran, honen antzerako mozioa aurkeztu genuen eta udal batzarrak ez zion kasu handirik egin. Setati samarra ez denak ez omen ditu inoiz bere helburuak lortzen, horregatik berriz ere hemen gaituzue.

Honako mozio honen helburua, gure errekek berreskuratzeko hartu behar diren neurriak gorpuztean datza. Apostu tinkoa egin nahi dugu legegintzaldi honetan Deba erreka eta bere errekadarrak biologikoki bizirik egon dai-

tezen.

Akordiorako proposamenak:

1- Udalak, Deba erreka-aren artoa berreskuratzeko behar diren neurriak gauzatu ditu, horretarako beharrezko diren erakunde, instituzio, eta abarrekin harremanetan jarriaz.

2- Udalak, ibaien berreskuratzea bultzatzeko, lehen pauso bezala, Deba aroko udalekin osatutako batzorde berezi bat lehenbailehen antolatzen saiatuko da.

.....
“Apostu tinkoa egin nahi dugu legegintzaldi honetan Deba erreka eta bere errekadarrak biologikoki bizirik egon daitezten”

3- Udalak, bere herriari dagokion erreka eta lur sailletan egiten diren isurkinen etengabeko kontrola eramango du, ondorio bezala eta legeen arabera, errudunei behar diren isunak ezarriko dizkielarik. Isurkinaren edukia eta data zehaztuz, kutsatzen dutenen aurkako salaketa publikoak egingo ditu.

4- Udalak hasitako plana bukatuz etxeetako materia organikoendako araztegiak jarriko ditu herri osoan.

5- Udalak, aktibitate lizentzia eta beste tresna batzuk eskuan dituenek, jarduean dagoen legedia, araztegi sistema, isurkin, e.a.ei buruzkoa bete araziko die inguruko enpresei. Legedia betetzen ez dutenei legeak agintzen dituen isunak jarriko zaizkie.

6- Udalak, herri eta inguruko erreken hilketaren iturburu, eta ekosistema flubialaren txikizioa suposatzen duten kanaleratzeak, ahal den neurrian ekidituko ditu. Aipatutakoaz gain, kanaleratzeak, uholde garaietan arazo larriak sortzen ditu eta inongo beharrik gabe naturari bere osotasuna eta edertasuna ezabatzen dizkio.

7- Udalak Deba arroan zehar, uztailaren 16an, errekek berreskuratzearan alde egingo den martxa lagundu eta bultzatuko du. Jakina denez martxa hau bailarako talde ekologistek antolatuta urtero egiten da, eta, eduki kontzientziaztaile nahiz dibertigarria du.

* **EKIko KIDEA**

USTEAK USTE

URTEURRENAK

**Gaur ikurrinak 101 urte egin ditu (igaz mendeurrena bete zuenez gero) eta gaurko egunez frantses iraultza-
ren 206. urteurrena betetzen da. Neurri batetan, iraultza honen ondorioz etorriko da ikurrina sortuko duen mugimendua.**

Iraultza liberal honek sekulako aldaketak eragin zituen gizarte eta politika mailan. Baina libèrtekin batera ègalitè zegoen eta horrela Iparraldeko hiru probintzietako foruen azkena etorri zen, pribilegiotzat jotzen zituztelako Parisen. Euskarak ere ez zuen (eta ez dauka) leku handiegirik jaiotako Estatu zentralista horretan: administrazio bakarra, hizkuntza nazional eta ofizial bakarra, nazio bakarra. Honekin batera, France, Une et Indivisible-ren uniformizazioaren ikaslerik aurreratuena penintsulako beste Estatu hau izan zen eta konstituzionalismoaren olatuak berarekin eraman zituen Hegoaldeko foruak. Euskaldunek beren lege sistema modernitatera egokitu ahal izango zuten baina ez zieten aukerarik eman. 105 urteren buruan ikurrina jaioko zen. Ospa dezagun ospatu beharrekoa.

ANDER ETXEBERRIA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 22 70

• **ARTEA** •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Lantegi eskolaren hirugarren proiektua hasiko da astelehenean

Enpresa Ekintzetarako Zentroa eraikitzea izango du helburutzat

Aste honetan aukeratu dira Lantegi Eskolaren hirugarren proiektuan parte hartuko duten 56 ikasleak. Ikasle horiek astelehenean hasiko dute ikasturtea eta igeltseritza, iturgintza, arotz-gintza eta elektrizitatea ikasten duten bitartean, Enpresa Ekintzetarako Zentroa eraikiko dute Arrasaten.

Proiektuaren bultzatzaileak Deba Garaiko Mankomunitateak, autoenplegua bultzatu nahi du eta horretarako zentroa eraikitzea erabaki du. Zentro horrek txoko bat emango die enpresa bat sortu nahi dutenei. Zaldibar ikastetxearen ondoan dagoen orubean eraikiko den zentroak 2.200 m² izango ditu eta gutxi gorabehera, hamabost enpresendako tokia egongo da. Sabino Martiartu, Lantegi Eskolaren zuzendariaren esanetan, "zentroak lanpostuak sortzen lagun dezakeenez, proiektu hau orain arte egindakoetatik garrantzitsuena izan daiteke". Azken bie moduan, Proiek-



Zaldibar Ikastetxearen ondoan dagoen orubean eraiki nahi dute zentroa.

tu berriari ere emango dio dirulaguntzarik INEM-ek. Eraikunde horrek 150 milioi emango ditu eta Mankomunitateak 50. Zentroa herrian kokatzeagatik, Arrasateko Udalariri 40 milioi eskatu zaizkio, diru horrekin eraikinaren estruktura egiteko. 95eko aurrekontuak onartzeko egin zen plenoan eskaria aztertu zen baina 40 milioi ematearena ez zuten ondo ikusi HBk eta

PSE-EEK eta proposamena mahai gainean geratu zen. Zentroa Zerrajeraren eraikinean moldatzea proposatu zuen HBk. Gutxi barru lanean hasiko den Korporazioak berriz ere proposamena aztertu eta oniritzia emango duela espero dute Lantegi Eskolako arduradunek, lehenbailen estruktura egitea nahi dute eta.

Hirugarren proiektuan par-

te hartzeko izenematea zabaldu zenean 300 gaztek eman zuten izena baina azterketara 100 bakarrik azaldu ziren. Biztanleriaren arabera erabakitzen da herri bakoitzetik zenbat gazte izango diren ikasturtean. Arrasatek 24k parte hartuko dute, Bergaratik 13k, Oñatitik 9k, Aretxabaletatik 5k, Eskoriatzatik 3k eta Antzuolatik 2k. Gatzaga eta Elgetatik ez da inor aukeztu.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

Udala eratzeko plenoa egingo da gaur arratsaldean

Gaur ostirala arratsaldeko 7etan, udalaren eraketarako pleno berezia egingo da eta behin hori eginda, Korporazio berria lanean hasiko da. Pleno horretan, Udaleko gobernu taldea zein alderdik osatuko duten jakingo da eta Batzorde Informatibo bakoitzean zein zinegotzi izango den ezagutuko. Baliteke hirukoak batzordeen eraketaren aurka bozkatzea, eta horrela egingo balute Udala erdi geldirik geratuko litzateke. Izan ere, gaiak diktaminaturik eraman behar dira plenora eta diktamen horiek, Batzorde Informatiboek egiten dituzte. Diktamen barik, ezingo dira gaiak plenoan aztertu.

Albiste hau idazterakoan, hala ere, ez zegoen garbi hirukoak zer egingo duen



Gobernu taldea zeintzuk osatuko duten ezagutuko da.

gaurko plenoan. Astean bilerak izan dituzte PSE-EE, EA eta EAJko zinegotziek eta atzo goizean (ostegunean) beste bat eduki behar zuten, plenoan zer egin erabaki eta zentsura mozioa aurkeztea erabakitzekotan hori noiz egin zehazteko. Zentsura mozioa

aurkeztuko balitz, hamabost eguneko epean mozioa aztertzeko plenoa egin beharko litzateke. Hori bai, mozioa aurkeztu baino lehen gai guztiak ondo lotu beharko ditu hirukoak, legegaldi bakoitzean (lau urtetan) bakararra aurkez daiteke eta.

Hirukoak zer egingo duen argi ez, eta ezta gobernu taldea zeintzuk osatuko duten ere. HBrekin gobernuan sartzearen aukera aztertu du egunotan Ezker Batuak eta atzo bilera izan behar zuten bi alderdiek. Bileran bere programaren oinarriko puntuak aurkeztu behar zituen EBk; HB horiek aurrera eramatearekin ados egongo balitz, bi alderdiek osatuko lukete gobernu taldea.

Gaurko plenoan gainera, plenoak hileroko azken ostiralean egitea proposatuko du HBk. Horrez gain Mankomunitatean, Kutxan, Ur Partzuegoan eta Udalak ordezkari izan behar duen beste toki batzuetan, Arrasateko Udaleko ordezkariak zeintzuk izango diren aztertuko da.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
 ESTOMBA
 GOMEZ
 MURGIENDO
 OTALORA
 RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Mutikotan ardiei ilea mozten ibilitakoa zela eta, **Kristobal Arexolaleibak** gustora hartu zuen lanerako **Roberto Pagaldaik** egindako gonbitea. Zapatuan agindu bezala, Kristobal han zen igandean goizeko 7.30etarako Alabitako txabolan. Eguerdira arte biak jo eta ke ibili ziren lanean, ardi guztiak dotore dotore utzi artean.



IZEN PROPIOAK

● **Jose Felix Diaz de Tuestak** Donostiako XIV. Udal Ikastaroan hartuko du parte uztailaren 18an. Komunikabideen ekarpena hizkuntza normalkuntzan gaiaren inguruan emango du hitzaldia. Jose Felixek 41 urte ditu eta Udaletxeko Euskara Zerbitzuko burua da. Udal ikastaroetan parte hartzen duen lehen aldia da.

● **Eluzka Zabalo** 13 urteko arrasatearrak infantil mailako margo lehiaketa irabazi zuen Aretxabaletan. Urkulu inguruko paisaia margotu zuen Eluzkak eta bere lana onena izan zen.

● **Nati Abasolo**, 41 urte atxabaltarra, HABEko ikuskatzaile berria da Gasteizen. Hizkuntzaren kalitateaz arduratzen da HABE abian jarri duen Garapen sailaren barruan. Nati magisteritza ikasi du filologia adarretik eta 13 urtetan Arrasateko Udal Euskaltegian lan egin du. Horietatik 9 urtetan Euskaltegiko zuzendaria izan da.



Unai Urretxok tronboi irakasle azterketa, bikain batekin gainditu zuen eta gainera

Donostiako Kontserbatégian Tronboi lehiaketa irabazi du. Horrenbeste lorpenekin pozik

egoteko arrazoirik badu Unai gazte arrasatearrak. Zorionik beroenak eta horrela jarraitu!

Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

Epelde

- Estudioa
- Ezkontzako erreportaiak
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24
Tfnoa: 79 19 71

Maixu Arano, 8
Tfnoa: 79 26 23



Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

Txutxumutxuak

Institutuko irakasleak Errioxara joan ziren ikasturte amaierako bidaia egiteko. 30 irakasle elkartu ziren eta zenbait bodegatan Errioxako ardo ederra dastatu ondoren, La Guardian bazkaldu zuten. Eguneroko errutina alde batera utzi eta Errioxa aldean primeran ibili ziren Institutuko irakasleak.



AEKko udako ikastaro trinkoan parte hartzen ari den ikasle talde bat izan genuen bisitari Arrasate Press eta Telebistan astelehenean. Bisitan etorri ziren eta baita laguntzeko gogoz ere. Datorren asteko ARRASATE PRESSEKO inkesta beraiek egingo dute.



Juan Antonio San Epifanio, "Epi" saskibaloi jokalaria Urbina Maltzaga taldeko gazteenekin izan zen Gasteizen.

Kadete eta Jubenil taldeetako neska mutilek Basconiak antolatatu duen Campus batean hartu duten parte.

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tfnoa /FAX: 79 01 82

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

UGARTE

**Industri
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412

● Arantza Jaka

Lekaime izateko deitua

Orain dela lau urte, Arantza Jaka, 27 urteko donostiarra Aretxabale-tako Ama Agustindarren elkartera heldu zen. "Jainkoak lekaime izateko deitu ninduen" dio Arantzak eta horregatik, lekaime izateko formazioa hasi zuen. Uztailaren 23an, eskuan eraztuna jarriko diote eta buruan zapi beltza. Egun horretan, lekaime izateko nahia berretsiko du azken aldiz.

- Nola sortu zitzaizun lekaime izateko nahia?

- Gaztetan hasi nintzen fede heziketa jasotzen. Mojen ikastetxeetan ikasi dut eta betidanik kristau taldetan sartuta egon izan naiz. Familian ere kristau fedea bizi izan dut, beraz lekaime sartzearena ez da bapatean hartutako erabakia.

Kristau taldetan hasi nintzenez, adinekoak zaindu edo misioetako gauzak antolatzen nituen eta administratza ikasi nuenez, Karitasen lan egiteko aukera ere atera zitzaidan. Karitasen pertsona behartsuekin egin nuen lan eta pertsona horiengan Jainkoaren aurpegia ikusi nuen. Lanean pozik nengoen baina barruak zerbait gehiago eskatzen zidan eta pentsatzen hasi nintzen. Sekular joatea gutxi iruditzen zitzaidan, ezkondu-

ta ere ez nintzen ikusten, hemen ere zer egin banuela eta misiolari joan beharrik ez nuela ikusi nuen... Poliki-poliki eta laguntza jaso ondoren, bizitza kontenplatiboaren aldeko apustua egin nuen.

- Zer esan nahi duzu bizitza kontenplatiboa aukeratu zenuela esatean?

- Guri buruz hitzegitean klausura hitza erabiltzen da baina niri hitz hori ez zait gustatzen. Ez da bidezkoa gure bizimodua besterik gabe klausurakoa dela esatea. Isiltasunak, bakardadeak, otoitzak eta klausurak definitzen dute gure bizimodua, beraz zergatik aipatzen da klausurako lekaimeak garena bakarrik?

- Lekaime izatea erabaki zenuenean zer esan zizuten etxekoek eta lagunek?

- Etxekoek nahiko argi zuten lekaime joango nintzela baina sorpresa handiena kontenplatiba joango nintzela jakitea izan zen. Hala ere, etxean askatasunean eta errespetuan hezi gaituztenez, ez nuen arazorik izan. Lagunek gutxiago ulertu zuten, ez nuela aguntatuko esan zidaten baina nire erabakia errespetatu zuten.

- Zergatik erabaki zenuen aretxabale-tako Ama Agustindarren elkartera etortzea?

- Gipuzkoan hogeitazortzi monastegi daude. Eraman



izan dudana bizitza motagatik, Aretxabale-tako lekaimeak euskaraz bizi direlako eta liturgiak irekiak izaten direlako hona etortzea erabaki nuen. Hogeitahiru urte nituela heldu nintzen Aretxabale-tara eta lekaime izateko formazioa hasi nuen.

- Zein da elkarte honetako lekaimeon eginkizuna?

- Jainkoa goresteari eta otoitz egiteari ematen diogu lehenetsia. Gizarteari Jainkoa dagoela adieraztea da gure helburua. Besteengatik lan egitea oso ondo dago baina ez da ahaztu behar lehen gauza Jainkoa dela. Horrek ez du esan nahi mundutik banatuta bizi garenik, komunikabideen bidez gertatzen ari denaren berri izaten dugu.

- Zelan ikusten duzu gaur egungo gazteria?

- Magisteritza ikasten ari naiz eta gazteekin harremana dut. Benetan kezkatuta nago gaur egungo gazteriarekin, ondo bizitzea eta ondo pasatzea dira ardurak zaizkion gauza bakarrak eta. Gazteek ez dute bere barruarekin edo bizitzarekin planteamendurik egiten, kanpoko gauzei ematen diete garrantzia. Frustazio gehienak hortik etortzen dira, euren buruarekin ez dardelako pozik eta ez dutelako hitzegiten. Hala ere, fededuna naizenez itxaropena dut eta guzti honek zerbaiterako balioko duela espero dut.

- Ez duzu uste aurrerago garbatu egingo zarela?

- Jainkoak lekaime izateko dohaia oparitu dit eta opari hori egin badit, ez dut uste kenduko didanik. Orain nire lana da dohai hori lan-tzea eta zaintzea.

● **"Isiltasunak, bakardadeak, otoitzak eta klausurak definitzen dute gure bizimodua, beraz ez gara klausurako lekaimeak bakarrik"**

Dragoi Produksioak

Bideo egile arrasatearrak

Beñardo Kortabarria

Gaztea izan behar gaur egun enpresa bat eratu eta aurrera begira jartzeko, baina ez hori bakarrik, toki askotan aldi berean esperientzia eskatzen dute eta. Gaztetasuna eta esperientzia, horixe dute beraien alde Dragoi Produksioak enpresakoek, horixe eta eskuartean aurrez ondo landutako proiektu bat edukitzea.

Andoingo Zine eta Bideo Eskolara joan ginen gu, bakoitza bere gogoekin, baina beti ere komunikabideak eta irudiarrekiko interes batekin. Mundu honetan sartzea besterik ez genuen egin han, Eskolan gehiago ezin da egin eta. "Jabi Elduaienen hitzak dira horiek, Iban Ayesa eta Josu Galdosekin batera Dragoi Produksioak enpresako kide-etako bat, noiz behinka Pako Altuberen laguntza jasotzeko beharra izaten badute ere. Jabi Elduaien bera izango da egiten ari diren lanaren berri eskainiko duena, hain zuzen ere. "Kamara ezagutzen hasi eta errealizazio egiten bukatzen da Eskolan; hau da, saio batzuk zuzentzen".



HASIERATIK GOGOR LANEAN

Gehienetan gertatzen den bezala, ikasketak bukatu eta langabeziaren zezenari adarrak ikusi zizkioten gazte hauek. Dena dela ez zuten akuilu hartzeko astirik galdu zezenari aurre egiteko. "Udal-letxean telebista bat sortzeko proposamena aurkeztu genuen, eta ideia hor geratu zen. Beranduago Arrasate Telebista sortu zuten eta han sartu ginen, batzuk astean zehar lanean eta beste batzuk asteburuetan. Esan daiteke mundu honetan Arrasate Telebistari esker sartu ginela. ATBko lanaldia bukatu ostean ikastaro batzuk egin geni-

tuen. "Ikusentzuneakoak hezkuntzan" gaiaz egin genuena oso baliotsua suertatu zitzaigun, profesional onekin harremanetan jartzeaz gain, ideia eta ikuspuntu ugari eman zizkigun eta. Hiru dimentsiotan marrazteko beste master bat, eta edizio teknika berriak ere ikasi genituen, muntaian dirua aurreztuz azken produktuan kalitate bera eskaintzen dutenak".

LEHEN BULTZADAREN GARRANTZIA

Jakina, ezin betik ikasten aritu, ikasitakoa praktikan jartzea izaten baita helburua. "Hori guztia egin ondoren konturatu ginen beste pro-

duktora batzurenzat lan egitea ez zela guretako onena, beharra eurak bezala edo hobeto egiten genuen eta. Beste batzurenzat lana ondo egiten bagenuen, zergatik ez geuretzat egin? Hortaz jabetu ginen, baina hala ere, zerbait gehiago behar da enpresa bat eratzeko: gutxienez aholkularitza bat eta hasierako bultzada. Une hartan, Udalak enpresak sortzeko plan bat kaleratu zuen, guk bideo produktora bat egiteko proiektua aurkeztu genuen eta aukeratu egin zuten. Plan horren barruan enpresa munduko aholkularitza lortu genuen eta hasierako bultzada ere, Udalak berak eman

zizkigun eta lehen bi lanak. Laguntza eta era berean erronka handia izan zen guretzat, bapatean bezero bat genuen eta profesionalki erantzun behar genion. Eta erantzun ere horrela erantzun genion, hasierako lanetarikoa batek Euskal Herriko Ikusentzuneke Lehiaketan saria lortu zuen eta, produktora handiekin lehiatuz gainera”.

Gasteizen lortutako sari horrek animo handia eman zien gazte hauei, egindako lanak errekonozimendua zuela ikusi zuten, lana ondo eginez gero badagoela aurrera ateratzerik. 1993ko maiatza zen. Hurrengo pausua herrian kokatzea izango zen, Dragoi Produkzioak izena sortu eta toki jakin batean finkatu, izena zabaldu bailara osoan, enpresa, instituzioetan, ikastetxeetan... baina ez zuten berehalako erantzun onik lortu. “*Hasierak txarrak izaten dira eta guk ere txarto pasatu genuen, Euskal Herrian produktora ugari dago eta esperientzia izan barik jendea ez da fidatzen. Komertzial lana ondo eginda eta kalitatezko produktuak eskainiz apurka apurka aurrera egiten ari gara, eguneroko lanaz gain egunero zerbait ikasiz. Izan ere, lanbide honetan betik da garrantzitsua ikasten gotea”.*

MERKATUAN TOKIA EGIN

Ikasketekin zerikusia handia dute Dragoi Produkzioen bezero onenentzikoak, ikastetxeek. “*Egin dugun gauzarik garrantzitsuen merkaturatzea izanda. Orain arte, ikastetxeek promoziorako diptikoak, triptikoak, hitzaldiak e.a. erabiltzen zuten, baina guk beraien aurkezpena egiteko bideo formatoa proposatu eta arrakastatsua suertatu zaigu. Pentsa, datorren ikasturteari begira dagoeneko badugu*



proposamen bat baino gehiago, eta ez bakarrik hemen ingurutik, Bilbotik, Gasteiztik... badirudi etorkizuneko kontua dela, eta inportanteena: guk jorratutako bidea dela. Zegoen merkaturatu gara, baina geurea ere sortu dugu.

Gaur egun berri, Fagor Industrial da daukagun bezero garrantzitsuen, labe eta sukalde industrial berriak komertzializatzeko bideoak egiten ari gara. Erronka handia da guretzat”.

Erronka hitza aipatu du Jabi Elduaieken, eta erronka izatekotan, benetakoa enpresa eratzea izaten da, hasierako inbertsioak. Hiru lagun hauentzat, hala ere, lehen inbertsioena ez zen oztopo handiegia suertatu. “*Erabiltzen dugun metodologiari esker ez dugu inbertsio handiegirik egin behar izan, informatikaz lana egiten dugu eta. Muntaiak egiteko ez dugu tresneria gehiegi behar: irudiak grabatzen ditugu, bozeto bat egiten dugu aurrez, eta behar ditugun datuak diskete batean sartu. Orduan post-produkzio gela profesional batera jotzen dugu, hango ordenadorean sartu aurrez landu-*



Ezkerretik hasita, Josu, Iban eta Jabi.

tako disketea eta makinak berak egiten du lana. Hamar minutuko erreportai bat guk 4-6 orduan egiten dugu; era tradizionalan 4 bat eguneko lana da, hor aurrezten da dirua. Euskal Herrian oso jende gutxi egiten du lana horrela, erabiltzen ez dakitelako. Sistema horri esker ari gara gu lana era profesionalan egiten, bestela gutxienez 15 milioiko lehen inbertsio bat

beharko litzateke; guk milioi t'erdikoa egin genuen”.


Hasierako garaia utzi eta etorkizunari begiratzeko ordua iritsi zaie Dragoi Produkzioak enpresako gazteei, baikortasunez begiratu gainera. “*Bezeroak ugarituz doa eta ikusten dugu etenik gabeko lana dugula, eta hori da inportantea, egunero lana edukitzea, jarraipena lanean, eta ez bakarrik bailaran baita kanpoan ere”.*

Udako kirola nagusi uztailean Musakolako kiroldegian

Musakolako kiroldegian uztailearen 3an hasi zen multikirolen ikastaroa 21a arte iraungo du. Mikel Morrased gidatzen duen ikastaroan 40 neska mutil ari dira parte hartzen. Goizez 7 urtetik 10 urte bitarteko neska mutilak daude, 14 guztira; arratsaldez 10 urtetik 14 urtera artekoak, 26 bat partaide. Astelehenetik ostiralera bi ordutan era guztietako kirola egiten dute gazteek, hala nola, badminton, frontenisa, beisbola, saskibaloia, eskalada, futbola, uretako jokuak...

Kirola egin eta ondo pasatzeko helburuaz gazte ugari elkartzen da kiroldegian. Gertutik zenbait kirol ezagutzeko aukera dute eta era berean lagun berriak egiteko.

Tenis ikastaroa ere abian da dagoeneko. Une honetan bigarren txandarekin ari dira eta tenisean 50 bat neska mutilek eman dute izena. 8 urtetik 14 urte bitarteko gazteek goizean 10 etatik 11etara eta arratsaldez 3 etatik



4etara eta 4etatik 5etara dute klasea. Tenis irakasleak heziketa fisikoan lizentziatuta dauden Mikel Morrased eta Jose Luis Erañak dira.

Taichi ikastaroan zortzi lagun ari dira, gehienak emakumezkoak. Astelehenetik ostiralera 8etatik aurrera elkartzen dira kiroldegian eta Txinako jatorria duen kirolaren berezitasunak ikasten dituzte. Aste honetan arku tiraketa ikastaroa hasi da. Ander Mallabiabarrena irakaslearen gidaritzapean 10 lagun ari dira egunero 6etatik 7etara. Azkenik buzero




ikastaroa ere abian da. Jose Luis Elexpuruk ematen duen ikastaroan 40 neska mutilek

eman dute izena eta buzeroaren lehen urratsak ikasten ari dira igerilekuan.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral,
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99




LORATEGI "BAR"

Iturriotz, 7 ARRASATE
Tfnoa: 79 04 67

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

CE ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

LABURRAK



Gasteizko Campusean egon ziren arrasatearrak.

Hiru arrasatear Madrilgo saskibaloia Campusera

Urbina Maltzaga taldeko gazteenak Basconiak Adidas kirol markarekin antolatutako campus batean izan ziren Gasteizen. Aste betez saskibaloiko teknikak jorratu eta lantzeko aukera izan zuten goi mailako irakasleekin. 150 bat neska mutil egon ziren Gasteizen eta horien arteko onenek Madrilgo campusean parte hartzeko aukera zuten. 30 neska mutil arrasatear izan ziren Gasteizen eta hiru Madrilera joateko

aukeratu dituzte: Itsaso Mallabiabarrena, Ander Mallabiabarrena eta Roberto Gutierrez. Domeka honetan joango dira Madrilera utzailaren 22ra arte.

Campusean Manolo Floresen aginduetara arituko dira. Manolo Flores 14 denboralditan izan zenartzelona saskibaloia taldeko jokalaria eta tekniko 9 urtetan. 93-94 denboraldian ACBko Caceres taldeko entrenatzailea izan zen.

Juan Antonio San Epi-

fano, Epi, orain arte Bartzelonako jokalaria izango dena ere bertan izango da eta Epirekin batera NBAko Joe Dumars jokalaria. Joe Dumars 32 urteko Louisianarra Detroit Pistons taldeko jokalaria da. Izen handiko kirolaria NBA ligan eta besteak beste 1994. urtean Estatu Batuetako saskibaloia selekzioaren partaide izan zen. Garai hartako Dream Team-ak Torontoko munduko saskibaloia txapelketa irabazi zuen.

Zikloturisten irteera

Zikloturistek 93 kilometro irteera egingo dute domekan. Ibilbidea: Arrasate, Elgoibar, Ukarregi, Laruskain, Berriatua, Markina, Trabakua, Ermua eta Arrasate. Irteera goizeko 8.30etan Montterondik.

Txirrindulari lasterketa

2. mailako afizionatuentzat Iñaki Lete III. Oroigarria egingo da Antzuolan domekan. Lasterketa goizeko 9.30etan hasiko da eta txirrindulariek 119 kilometro gainditu beharko dituzte.

Igerilekuko ordutegia

Musakolako igerilekua irailaren 15a arte astelehenetik igandera goizeko 9etatik 8etara egongo da zabalik. Gainontzeko instalakuntzak, astelehenetik ostiralera goizeko 8.30etatik 9.30etara eta larunbat eta igandetan goizeko 8.30etatik gaueko 8.30etara.

Carolina Landriscini

'Nicanor Zabaleta' beka eskuetan, EEBBra

Argentinan jaio eta Arrasaten hazitako 23 urteko gazte arrasatear honek, Gipuzkoako Diputazioak urtero ematen duen "Nicanor Zabaleta" musika beka eskuratu du. Beka horri esker EEBBetara joango da urtebetez, txelo ikasketak sakondu eta hobetzera.

— Arrasate Musikalen hasi zinenetik orainarte bide luzea egin duzu. Nolakoa izan da bide hori?

— Zortzi urterekin hasi nituen musika ikasketak Arrasate Musikalen. Solfeoa egin ondoren 4 urtetan egon nintzen txeloa ikasten. Tartean udako ikastaro batzuk egin nituen eta orduan irakasle hobe bat bilatzen hastea erabaki nuen. Gurasoei esan eta Baionako irakasle batengana eraman ninduten, Jacques Doué irakaslearengana. Berarekin egon nintzen UBIa amaitu arte, Baionara larunbatero joanez. UBIa amaitu eta gero Baionara joan nintzen han finkatu eta txelo ikasketak jarraitzeko; bien bitartean, Donostiako kontserbatorioko azterketetara aurkeztuz joan nintzen eta goi mailako txelo irakasle tituloa atera nuen. Baionakoa amaitu nuenean



Parisa joan nintzen eta bi urte egon naiz "Conservatorio Nacional de Boulogne Billancourt"en Xavier Gagnepain irakaslearekin. Abuztuan, EEBBetara noa berriro.

— "Nicanor Zabaleta" bekagatik izan ez balitz, agian ez zinake EEBBetara joango...

— Beno, EEBBetako unibertsitateak pribatuak direla kontuan izan behar da, beraz, diru asko behar da bertan ikasi ahal izateko. Aspaldi nuen bertara joateko asmoa eta nahiz eta beka ez lortu, joango nintzateke. Hala ere, ez

dakit, nire gurasoek ahalegin handia egin behar izango luketeen. Dударik gabe, beka hau lortu izanak tartean ikusten nituen arazo ekonomiko guztiak kendu dizkit.

— Zergatik aukeratu zenuen zure proiektuan Indianako musika eskola eta ez inguruko bateren bat?

— Janos Starker irakaslearekin ikasteko interesa dudalako. Asko gustatzen zait eta gainera, musika munduan oso ezaguna da. Oso pedagogia ona dauka eta musikari handiei erakutsi izan die.

Gainera, biolontxeloari buruz oso filosofia interesgarria du eta horrek izugarri erakartzen nau.

— Bekak urtebeteko iraupena dauka. Zein asmo dituzu gerorako?

— Parisa bueltatuko naiz urtebeterako amaitzeko utzi dudana hainbat gauza bukatzeko eta gero, ez dakit, akaso orkestra batean sartu ahal izateko frogetara aurkeztuko naiz.

— Euskal Herri osoan beka bakarra ematen da. Zer sentitu zenuen zurea zela jakin zenuenean?


— Poz handia. Banekien oso zaila zela eta batek bakarrik eskuratu zezakeela. Neukan guztia ematera joan nintzen, EEBBetako proiektua orain arte egin dudana garestiena izango zela banekien eta.

— Arrasate Musikalen irakasle izan zinen ere. Ze harreman duzu akademiarekin?

— Luis Sagasta, Luis Garro eta beste zenbait lagunekin harreman oso ona daukat, baita Patricia Esparzarekin ere, honek ere aspaldi ekin zizkion musika ikasketei Estatutik kanpo eta. Arrasatera etortzen naizenean asko gustatzen zait akademiara joan eta bertako lagunei bisita egitea.

"EDERTU"

Ileapaindegia • Solarium-a



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

PUB HAIZEA



HAURT X O A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE



TOTEM OINETAKOAK

Olarte, 41 • Tfnoa: 79 55 05 • ARRASATE

MODAKO BEGIRADAK



Ducci 95 Gilduma. D9.5. aredua: 6.750. paztefen

Ducci • Armani • Angaro • Dior • Vogue
Ferré • Zeiss • Vogart • Nina-Ricci • Reporter

Zatoz MULTIOPTICASera eta jar ezazu zure begirada modan. Ducci 95 bildumako diseinu berriekin, aurten zeu zara Top Modela.

**ZURE EGUZKITAKO
BETAURREKOAK
GRADUATZEN DITUGU**

90 egunetarako geroratutako ordainketa-sistema, errekargurik gabea, gure kreditu-Txartel bereziarekin.



Jar ezazu zure begirada modan

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN **1 Zba**

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE

Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

eta gainera: KAMISETA BAT OPARI!



ota Apurtu” kuadrilak 1951ko San Juanetan atera zuen erretratu hau, San Juan egunez, hain zuzen ere. Garai hartan lagun talde denek izaten zuten gatzizena. Hamabi urte inguru zituztenetik dira kuadrila, gaur egun lagun batzuk kanpoan ere bizi diren arren. Erretratu hau atera zutenean ere ez zeuden denak.

Mutiko kuadrila harentzat


egun garrantzitsuak ziren, ez herriko jairik inportanteenak zirelako bakarrik. Hamalau hamabost urterekin fraka luzeak jazten ziren orduan, eta jantzi berri zituzten gehienek. Zerrajeran lanean hasi zirenean ere artean motxekin joaten zirela ere gogoratzen dute. Fraka luzeak jaztea esanahi handiko gauza izaten zen, gizon egitearen seinale.

Jaietarako etorritako

argazkilaririk batek Portaloiko komunen ondoan atera zien erretratu.

Zutik, ezkerretik hasita, **Inazio Apaolaza Azkoaga, Jose Iza Otaduy, Ramon Aranegi Sarazibar “Pituso”** eta **Alberto Molina Blanco**.

Makurtuta, **Santiago García Cacho, Joakin Altuna Arkauz “Taiño”** eta **Jabier Arana Azkoaga “Metelo”**.





LOGOPEDIA ZENTRUA
ARRASATE

- HIZKUNTZ ARAZOAK
- HIZKETA ARAZOAK
- AHOTS ARAZOAK
- IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLAK
EGUN ERDIRAKO IRAKASLE BAT BEHAR DU:**

Arte Ederretan lizentziatua, EGA.duna. Argazkigintza emateko gai izatea baloratuko da.

Interesatuok hilaren 24rako curriculumak bidali helbide honetara:

San Frantzisko Xabier Ikastola
Otalora Lizentziatua, 8 • 114 Postakutxa • 20500 ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

M^a Jesus Juantorena**Udalako pizinetako arduraduna**

- Zer dauka pizina honek kiroldegikoak ez duena? Askoz lasaiagoa da..
- Zenbat jende sartzen da? 200en bat lagun.
- Urak ze temperatura dauka? 32 gradu gutxi gorabehera.
- Nolakoa da zure bainujantzia? Loradun bikinia.
- Zenbat sokorrista daude? Bi.
- Zein babes krema erabiltzen duzu eguzkia hartzeko? 25 protekziokoa.
- Nora zoaz oporretan? Oporrak aspaldi hartu nituen; Benidormen egon nintzen.
- Zein adineko jendea etortzen da pizina honetara? Denetarik, baina batez ere jende gaztea.
- Hemendik paraje ederrak ikusten dira... Bai, oso giro lasaia dago hemen eta inguruak ere laguntzen du.
- Gomendatu pelikula bat: Ez naiz zinera joaten baina telebistan "Goenkale" ikusten dut eta tele-sail hori gomendatuko nuke.
- Ezer faltan izatekotan, zer falta zaio Udalako pizinari? Ezer ez, baina eguraldi hobe egingo balu laguntza handia izango litzateke.
- Udalaiz ondoan egonda, askotan igoko zinen bertara. Zenbatetan? Gezurra dirudi baina behin bakarrik.
- Zer daukazu poltsikoetan orain? Paperezko musuzapi bat.
- Hemendik ikusten diren mendien artean, zein duzu gustokoen? Udalaiz, jakina.
- Noiztik pizina zabalik? Duela 22 urtetik.
- Zein hortzore erabiltzen duzu? "Profident".
- Karta joku bat? Briska.
- Pilotari bat? Retegi.
- Zer oparituko zenioke ume jaio berria izan duen lagun bati? Lora sorta handi bat.




ARGITALPENAK

**"Arrasate 94
Lehiaketak"
liburua argitaratuta**

AED Elkarteak 1994an antolatutako argazki, diapositiba, komiki, ipuin, bertso-paper, poesia eta "Tokin Zaitegi VIII. Itzulpen Laburren Sariaketa" lehiaketako lan sari-tuak biltzen dituen liburua prest dago.

Guztira 23 lan jasotzen dira liburuska honetan eta lan bakoitzarekin batera, sari-tuaren argazkia eta lanaren gaiari buruz Luis Olaizolak egindako ilustrazio bana agertzen da.

Liburua irailean aterako da kalera aurkezpena egin eta gero. Liburudendetan jarriko da salgai.



Belem

Zabaldu berria!

- Portugaldik ekarritako artikulua
- Prezio esklusiboak
- Etixerako, momentuan jartzeko eta eskuz egindako artikulua


Olarte,6 Tfnoa: 79 25 71 • Arrasate
Herriko plaza, 10 Tfnoa: 79 59 78 • Aretxabaleta

• ESAERA •

“Ezerk ez dizu
bakea ekarriko, zuk
zeuk izan ezik”.

EMERSON

• JEROGLIFIKOA •



Gizon hori ez zait gustatzen.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10			11			
12	13		14			
15		16			17	
18						
19		20				

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Rafael, Al-Andaluseko lehendakaria. 6. Ukatzeko erebiltzen den hitza. 8. Aranak ematen dituen zuhaitza. 10. Esnatu aurretik. 11. Hileta-kantua. 12 (Ald.) Mozkorondo, biharamun. 14. Amerizioa. 15. Iranganbide. 18. Hizkuntza bi duena. 19. Musika-eskalako 2. nota. 20. Suge handi eta pozoingabea.

Bertikalak 1. Eperaren antzeko hegazti txikia. 2. Denetarik jaten duen animalia. 3. Malagako ibilgailuetan. 4. Nire. 5. Mugimenduak sortaraziko ondoeza. 6. Europako Diru Sistema. 7. (Ald.) Anexionatzearen ondorioz. 9. (Ald.) Ezagutu eta ulertzeko ahalmena. 13. Bete. 16. Araba Buru Batzarra. 17. Lehen-aldiko ZUEN, orain aldean.

• HOROSKOPOA •

Aries Muturrak saltsan. Horixe da zure espezialitatea.

Taurus Lan eta lan. Oporretan ez duzu pentsatzen?

Gemini Hainbeste begiratzen badiozu desagertu egingo zaizu.

Cancer Ariketa fisikoak on egiten dizu, izugarri lasaitzen zaitu.

Leo Oporrak monastegi batean pasatzea ez da ideia txarra.

Virgo Horrela jarraitzen baduzu, uretara sartzean mareak igoko du.

Libra Bihar entzungo duzun albiste batek lurjota utziko zaitu.


Scorpio Garai hobeak ezagutu dituzu baina zer egingo diogu ba?

Sagitaris Aste honetan amaren bisita izango duzu. Etxea garbitu.

Capricorn Gainean duzun alkan-dora horrekin zikin itxura duzu.

Aquarius Telefonoa pintxatuko dizu zure senarrak. Kontuz ibili.

Piscis Gomendio bat: noizean behin besapeak garbitu.



WERU®

Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik...

TELEBISTAREN TXOKOA




Elkarte gastronomikoak ATBn

Dakizuen, datorren denboraldirako programa berriak prestatzen ari gara ATBn. Horieta bat elkarte gastronomikoei buruzkoa izango da eta abendutik aurrera emititzen hasiko da. Hogeita lau programa izango dira guztira: horietatik 19 elkarteei buruzkoak eta beste bostak elkarte-an egindako janarien bildumak izango dira.

Elkarteak sei taldetan egongo dira banatuta: talde horietatik janari goxoen prestatzen duen elkarten artean, lehiaketa bat izango da kalean datorren urteko San Juan jaietan. Programa hau aurkeztuko dutenak berriz, Karmele Zuazubiskar eta Tomas Axpe izango dira eta epaimahaikideak Bixente Pagoaga eta Aitziber Retolaza.

KOMIKIA



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PROGRAMAZIOA

OSTEGUNEAN
AZKEN EMISIOA

**Heldu zaigu dagoe-
neko oporrak hartze-
ko garaia.**

**Aste honetan buka-
tuko ditugu emisioak,
hilaren 20an, baina
abuztua bukatu aurre-
tik berriro hemen izan-
go gara lanean.**

**Ea bada oporrak
ondo pasatzen ditu-
zen eta bueltan beti
bezala leial leial etort-
zen zareten!**

Oharra

Datorren ikasturterako programazioa lantzen hasita gaude. Informatibo berriak, lehiaketa desberdinak, aurpegi berriak... Baina telebista herri guztiari dago zabaldua eta zure kolaborazioa ere asko eskertuko genuke. Programa baterako ideien bat baduzu eta ideia hori garatu nahi baduzu, hurbildu zaitetz guregan. Zure ideia bideragarria den esango dizugu eta laguntzarik behar izanez gero, ez duzu faltan izango.

Zatoz Arrasate Telebistara eta azalitzazu daukazun kezka, ideia eta asmoak!

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1. Gomez, 6. Ez, 8. Arando, 10. Lo, 11. Erest, 12. Eja, 14. Am, 15. Pasabide, 18. Elebidun, 19. Re, 20. Boa.
Bertakak: 1. Galeper, 2. Orojale, 3. Ma, 4. Ene, 5. Zorabio, 6. EDS, 7. Zoitena, 9. Nemida, 13. Ase, 16. ABB, 17. Du.
Jergifikoa: Ergeia dirudi.

Etxebizitzak

- **Musakola aldean garajea** alokatzen da. Tfnoa: 79 37 68.
- **Eskoriatza erdi erdian 97m²ko** etxea alokatzen da. Sukaldea jantzita, 3 logela, terraza, garajea... Tfnoa: 71 43 51.
- **Pisua osatzeko bi pertsona behar dira** Donostian Amara auzoan. Dei egin 47 02 32 tfoara gaeuz. Miren.
- **Santa Polan bungalow-a eta Torreviejan apartamentua** alokatzen da hamabostaldika edo hileka, hondartzatik gertu dago, abuztuan eta iraillean. Tfnoa: 77 13 26.
- **Bi oheko gela** alokagai. Tfnoa: 79 07 73.
- **Neska gazte eta erantzuleak** sukaldea erabiltzeko aukera duen logela alokatuko luke edota pisu bat konpartituko. Tfnoa: 77 00 16. Rosa. Gaueko 8etatik 10etara.

Lana

- **Uztailean OHoko klase partikularrak** ematen dira. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 05 59. Oskar.
- **Ingeleseko klaseak** ematen dira, tituloduna eta akademiako esperientziarekin. Tfnoa: 79 28 98.
- **Uztailean esperientziadun neskak**, OHoko klase partikularrak emango lituzke euskaraz nahiz erdaraz. Tfnoa: 79 25 09. Ana.
- **Bost-sei neskak kitarra** klaseak hartuko genituzke. Irakasle jator bat behar dugu. Tfnoa: 79 58 99.
- **Magisteritza daukan** neska batek OHoko klase partikularrak ematen ditu uztailean zehar. Tfnoa: 77 10 21.

• **Uztailean klase partikularrak;** Ingelesa, euskara, EGB. Esperientzia eta talde txikiak. Tfnoa: 79 28 80.

• **Bizikleta mekanikari kanadiarra,** bizikletak konpontzeko prest. Tfnoa: 79 53 40.

• **Klase partikularrak ematen dira** uztailean, euskaraz nahiz erdaraz. UBI mailara arte edozein arlo. Tfnoa: 79 4675 / 79 23 36. Amaia.

• **Uztailean ingelesezko klase partikularrak** ematen dira. Tfnoa: 76 07 87. Arantza.

• **Neska prest garbiketaketegiteko.** Tfnoa: 79 37 68.

• **2. REMeko klase partikularrak nahi dituzte** uztailean eta abuztuan. Interesatuok deien egin 79 71 33.

• **Informatikako ikasleak udan OHoko klaseak** emango lituzke. Tfnoa: 79 34 58.

• **Frantseseko klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 27 06.

• **Injeneritzako kimikako klaseak jasoko** nituzke abuztuan. Tfnoa: 79 47 77. Xabier.

• **Emakume erizain laguntzaileak** pertsona nagusiak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 34 53.

• **Injeneritzako ikasleak** matematika eta marrazketako klaseak emango nituzke. Tfnoa: 79 16 19 (Astelehenetik ostiralera) eta 19 27 16 (Asteburutuan). Valen.

• **Gazte kanadiar batek ingelesko praktikako klaseak** emango lituzke. Dei egin 79 53 40 tfoara.

• **Neska batek** goizetan umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 68 18. Nerea.

• **Ile apaintetan diplomatu gaztea** abuztutik aurrera lan egiteko prest. Tfnoa: 79 36 18. Rosa.

• **Emakume euskalduna umeak** edo pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 07 73.

Salerosketak

• **46 pulgadako telebista pantaila salgai.** Taber-netarako egokia. Tfnoa: 79 24 59.

• **Bigarren eskuko soinu txikia erosi**ko nuke. Dei egin arratsaldez 77 04 98 tfoara.

• **Kitarrako klaseak hartuko** nituzke uztailean. Tfnoa: 79 20 24.

• **Ingeleseko klase partikularrak ematen dira.** Dei egin 5etatik 9etara 79 22 86 tfoara.

• **XR-2, SS-Y kotxea saltzen da.** Zuri kolorekoa eta egoera onean dago. Tfnoa: 71 42 14.

• **44-45 zenbakiko Doctor Martens** botak salgai. Beltzak dira, 10 zulodunak. Tfnoa: 79 53 40. Bob.

Denetarik

• **Betaurreko urdinak galdu** zaizkit Zigarrolatik kalerako bidean, larruzko funda batean. Tfnoa: 77 10 92

• **Graduatutako betaurreko metalikoak galdu** zaizkit funda beltz batekin autobus geltokian edo inguruan. Tfnoa: 79 99 03.

• **Zilarrezko pultsera harri berdeekin** galdu nuen San Juanetan. Aurkitu baduzu dei egin 76 29 96 edo 76 19 65 tfoara.

• **Urrezko eraztun bat galdu** nuen San Juanetan Santamainako aldanen (Kanposantuaren parean). Tfnoa: 79 91 77.

• **Ume pultsera bat galdu da** ekainaren 10eko asteburuan. Tfnoa: 79 70 89.

• **Sei hilabeteko katakume siamesa galdu da** Zerkaosteta kalearen inguruan. Arkakusoen kontrako koilarra dauka. Tfnoa: 71 46 08.

Aste Gazte

Bekak

- 95-96 ikasturtean hainbat arlotan (agronomia, itsasziientziak, elikadura, kutsadura,...) Latinoamerikan ikasketak sartzeko bekak. Epea: uztailak 30.
- Bergarako Udalak "Justo Garate Arriola" soziologiari buruzko ikerketa-beka deitu du. Ikerketa lana euskaraz burutuko da. Iraupena 11 hilabetekoa izango da. Diplomatuak edo maila bereko titulodunei zuzenduta dago. Epea: irailak 30.
- Antzerki Merkataritzan prestatzeko bekak. 30 urtetik

behera duten goi mailako titulodunei zuzenduta. Epea: uztailak 26.

95-Arrisku Soldata Programa

- Arrasateko Udalak deituta, enpresa idea bat eduki eta bere negozioa martxan jartzeko asmoa dutenei zuzentzen da programa hau. Negozioaren bideragarritasuna aztertzeko laguntza eskaintzen da. Epea: uztailak 28.

Soldaduzka

- Ikasketa prorroga eska-

tzeko epea gogoratu uztailak 31ean bukatzen dela.

Lehiaketak

- "Mendaroko Jendeaurreko VI. Margo Sariketa", uztailaren 22an (larunbata). Nahi duten guztiei zabalik. Sariak: 100.000 pta., 50.000 eta 10.000 pta. (14 urtetik beherako onenari akzesita).
- "Villa de Pasaia 95" Idazkuntza Motzaren III. Lehiaketa. Euskaraz zein gazteleraz. 14 urtetik gorakoei zuzenduta. Epea: urriak 20.
- Portugaleteko Udalak "Portugalete Uri Urena" VI. Ipuin-Lehiaketarako deia egin du. Euskaraz nahiz gazteleraz. Gaia librea da. Epea: Uztailak 28.

"Harropuzkeria eta lerdakeria gunerik handienetakoa rock & roll-aren mundua da"

DEF CON DOS



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ALTZARIAK

Berango

Berangok, sukaldearen ekipamendu osoa, berriztutako erakusketa ikustera gonbidatzen zaitu, kolore eta diseinuan gaurko modelo guztiez osatuta.

- Horretaz gain:
- Obra zuzendaritza
 - Barruko erreformak
 - Apainketa eta proiektuak
 - Neurrirako armairuak, ate korritzaile eta tolesgarriekin

Gainera orain, Berangon erositako sukalderako altzariak **doan lor ditzakezu!**



5 URTEKO
GARANTIAZ!



Legarre Pabiloia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea • ARRASATE
Tfnoa: 79 01 92



OPEL CORSA

PASIONA ZAITEZ!

Auto gaztea baina ekipamenduan, segurtasunean eta ekonomian galanta.

175.000 pta.ra arteko BEHERAPENA

Hile hau zurea eta zure Corsarena da!



ETZAZU UTZI ERAMATEN!



Opel Astrak konfortean, ekipamenduan eta segurtasunean irtenbidea ematen dizu.

250.000 pta.ra arteko BEHERAPENA

Etzazu utzi ihes egiten!

OPEL ASTRA

OPEL VECTRA

DENA ESKA IEZAIOZU!

Hile honetan bere erosotasunaz, segurtasunaz gain, prezio onena eska iezaiozu.

2.350.000 pta.tik aurrera

Hiru urteko garantiaz!



OPEL

Z U R E Z A I N G A U D E

TAKOLO
A U T O A K

Araba Etorbidea, 3 (ESKATU pabilioia)
Tfnoa: 79 05 86 **ARRASATE**
Zerbitzu Ofiziala ARRASATEn

TALLERES
OLA

Olabarrena auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46.
BERGARA (Gipuzkoa)

OPEL BANATZAILE OFIZIALAK, ESPERIENTZIAZ ONENAK.